



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA,
DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO UDAL
ESPAZIOAK ALDI BATERAKO LAGATZEA ARAUTZEKO
OINARRIAK. GETXO ITSAS HUB.

5 ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:	NANa:
Honen ordezkari moduan:	IFZ/IFK:
Sozietatearen izena:	
Proiektua:	

HONAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU (X jarri):

- Ezagutu eta onartzen ditu Getxoko udalerrian enpresak sortzea, dibertsifikatzea eta sendotzea bultzatzeko udal espazioen lagapena adjudikatzeke deialdiari dagokion oinarriak. GETXO ITSAS HUB.
- Eskatzailea ez da epai irmo baten bidez kondenatua izan honako delitu hauengatik: legez kontrako elkartzea, ustelkeria nazioarteko transakzio ekonomikoetan, eragimen-trafikoa, funtzionario-eroskeria, iruzurrak eta legez kontrako ordainarazpenak, Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak, langileen eskubideen aurkako delituak, bidegabeko eralgitzeak, errezibitze-delituak eta antzeko jarduerak eta ingurumenaren babesaren inguruko delituak. Eta ez du jaso lanbidean, ofizioan, industrian edo merkataritzan jarduteko desgaitasuna berezirik. Pertsona juridikoak ere baztertuko dira, baldin eta haien administratzaileak edo ordezkariak, kargua edo ordezkaritza indarrean dagoela, aipatutako egoeran badaude pertsona juridiko horien izenean edo mesedetan egindako jarduketengatik, edo kasuan kasuko delitu-figurak haren subjektu aktibo izateko eskatzen dituen baldintzak, ezaugarriak edo harremanak badauzkate.
- Eskatzaileak ez du zehapen irmorik jaso merkatu-diziplinaren arloko arau-hauste astunagatik, lanbide arloan edo laneratzearen eta desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko arau-hauste astunagatik, edo gizarte arloko arau-hauste oso astunagatik, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteak barne, edo ingurumen arloko arau-hauste oso astunagatik.
- Eskatzaileak ez du eskatu borondatezko lehiaketako adierazpena, ez da ezelako prozeduratan kaudimengabe gisa aitortua izan, ez dago lehiaketan aitortua (salbu eta lehiaketak hitzarmen baten eraginkortasuna lortu badu), eta ez dago esku-hartze judizialaren mende edo Konkurtsalaren arabera desgaituta lehiaketaren kalifikazio epaian ezarritako desgaitasuna aldia bukatuta ez dagoelarik.



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA, DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO UDAL ESPAZIOAK ALDI BATERAKO LAGATZEA ARAUTZEKO OINARRIAK. GETXO ITSAS HUB.

- Eskaera honez gain, **EZ** da Bizkaiko administrazio edo erakunde publikoek emandako lantoki baten lagapenaren xede izan kontzeptu eta helburu beragatik.
- Era berean, konpromisoa hartu du organismo honi idatziz jakinarazteko xede bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aurrean egin ditzakeen lagapen eskaerak.
- Enpresa-proiektuaren jarduerak ez dituzte urratzen Funtsezko Eskubideak eta Askatasun Publikoak.

Pertsona juridikoentzat edo ondasun erkidegoentzat edo nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilentzat edo bakarkako enpresentzat:

- Enpresa-jarduerak egoitza soziala eta/edo fiskala Getxo udalerrian dauka.
- Enpresa-jarduerak Getxo udalerrian dauka lantokia edo jarduera Getxo udalerrian garatzen du.
- Egoitza soziala eta fiskala Getxo udalerritik kanpo daukaten baina beren enpresa-garapeneko proiektuaren arabera Getxo udalerrian kokatuko diren enpresa-jarduerak.

Pertsona fisikoek (alta eman gabekoek) aurkeztutako enpresa proiektuetarako

- Proiektua aurrera eramateko aurkeztutako taldearen %50 baino gehiago Getxon erroldatutako pertsonak dira.
- Jarduera ekonomikoa eta egoitza soziala edo/eta fiskala udalerrian ezartzea aurreikusten da.

Eta egoki den lekuan ager dadin, idazki hau sinatzen dut.

Getxon 202_ko _____aren ____

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua (kasuan kasu):